**SOPELAKO UDALAK 2023ko UZTAILAREN 27an, ARRATSALDEKO 18:30ean EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE SOPELA, EL DIA 27 DE JULIO DE 2023, A LAS 18:30 HORAS**

**BERTARATUAK / ASISTENTES**
**LEHENDAKARIA / PRESIDENTA**
**ALKATEA / LA ALCALDESA**

Guruzne Carrasson Torrontegi

**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**

Unai del Burgo García (EH BILDU)
Eder García López (ELKARREKIN SOPELA)
Miguel Angel Tapia Trigueros (EH BILDU)
Aitziber Onaindia Martínez (EH BILDU)

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**

Naia Azkarate Estevez (EH BILDU)
Miren Itziar Lazaro Ardanza (EH BILDU)
Arantza Bilbao Olarra (EH BILDU)
Josu Barbarias Olabarria (EH BILDU)
Josu Landaluze Zarandona (EAJ-PNV)
Amaia Guenetxea Villabeitia (EAJ-PNV)
Gotzon Garai Elgezabal (EAJ-PNV)
Mª Angeles Ibarra Egiguren (EAJ-PNV)
Alberto Sobrón Calvo (EAJ-PNV)
Maider Cristina Núñez Guinea (EAJ-PNV)
Maria Luisa Gadea Nebreda (ALTERNATIVA VECINAL SOPELA)
Mª Teresa Fernández Garcia (PSE-PSOE)

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA / SECRETARIA ACCIDENTAL**

Begoña Irastorza Areizaga

Sopelan, bi mila eta hogeita hiruko uztailaren hogeitazazpian, arratsaldeko sei eta erdiak direnean, osoko bilkura eratu da, Guruzne Carrasson Torrontegi alkate-udalburua lehendakari dela, goian adierazitako zinegotziak bertan direla, ez-ohiko bilkura egiteko, deialdian adierazitako gai-zerrendaren arabera, eta Begoña Irastorza Areizaga andrea fede Behin-behineko Idazkariarekin batera. María Cambeiro andrea, Udal kontu-hartzailea bertaratzen da.

En Sopela, a veintisiete de julio de dos mil veintitrés, siendo las dieciocho horas y treinta minutos, se constituye el Pleno de este Ayuntamiento bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa-Presidenta, Dª Guruzne Carrasson Torrontegi, con asistencia de los/as Sres/as Concejales/as arriba señalados, al objeto de celebrar sesión extraordinaria, con arreglo al Orden del Día designado en la convocatoria, con la asistencia de la Secretaria Accidental Dª Begoña Irastorza Areizaga, que dará fe del acto. Asiste la Interventora Municipal Dª María Cambeiro.

**1.- 2023KO UZTAILAREN 6KO AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (0:08:27 MINUTUA):-** Honen berri emanda, <u>Osoko Bilkurak, aho batez erabakitzen du</u>: Akta onartzea.

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR DE FECHA 6 DE JULIO DE 2023 (MINUTO 0:08:27): -** Dada cuenta de la misma, <u>el Pleno, por unanimidad acuerda</u>: Su aprobación.

## ATAL ERABAKITZAILEA

### LURRALDE ANTOLAKUNTZA
### Hirigintza, Etxebizitza, Ingurumena eta Obrak eta Zerbitzuak

**2.- LURSAILAK ZUZENEAN OKUPATZEA, SOPELA DBH "IBERRE INSTITUTUA" IKASTETXEA HANDITZEKO. (2225/2023 ESPEDIENTEA (0:08:46 MINUTUA): -** Jarraian, Sopelako EHBildu udal talde politikokoa den Mikel Tapia jaunak hartzen du hitza, zera esanez: Dakigun bezala, Abaroren Plan Partziala pasa den maiatzan egindako Osoko Bilkuran. Espedientean, txosten juridikoa eta teknikoa daude. Txosten juridikoak, premisa moduan, adierazten du lurrak aurretik eskuratu ahal izango dirala, betiere, dotazio publikorako bada, beraz, hori goiaipatzekoa da. Txosten teknikoan ere agertzen da, lursailen zerrenda, nortzuk diren jabeak eta bakoitzari dagokion Hirigintza edifikabilitatea edo eraikigarritasunak. Beharrezkoa da esatea, jabeen eta udalaren arteko 2013an egindako hitzarmena erreferentzia dela. Prozedura hauxe da: akordioa hartu ondoren, argitaratu behar da eta jabeei jakinarazi behar zaie. Horretarako hila beteko epea izango da eta epe hau pasa ondoren, akta egin beharko da eta honen ondorioz, partzelak okupatu daitezke eta Hezkuntza Sailak eskuratu ahalko ditu. Garrantzitsua izango da Hezkuntza Sailera gaurko erabakia ahalik eta arinen helaraztea. Bihar bertan, ziurtagiriak helaraziko zaizkie jabe eta erakundeek, jakinaren gainean izateko eta dagozkion ondorioetarako. Hemendik 15 egunera Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen bada, irailaren hasierarako okupazio-akta sinatzen egon gaitezke, eta partzela Hezkuntza Sailaren esku jartzeko prozedurarekin jarraitu.

Elkarrekin Sopela/Podemos udal-talde politikoko Eder García jaunak honako hau adierazi du: Gaur osoko bilkura honetan emango dugun pausu honekin, zeina aurrera ateratzea espero dugun, 2019an hasitako prozesua amaituko da. Horretarako lursail bat lagako dugu, Hezkuntza Sailak Sopelako hezkuntza-komunitatearen erreklamazio historiko bati erantzun diezaion, Sopelan Batxilerra egon dadin. Hori aspaldiko erreklamazioa da, hain zuzen ere, nik Batxilergoa egin nuenekoa. Gure ustez, gaurko urrats honekin, Sopelak egin beharrekoa egin du, eta orain Hezkuntza Sailari dagokio handitze hori egitea.

## PARTE RESOLUTIVA

### ORGANIZACIÓN TERRITORIAL
### Urbanismo, Vivienda, Medio Ambiente y Obras y Servicios

**2.- OCUPACIÓN DIRECTA DE TERRENOS CON OBJETO DE LA AMPLIACIÓN DEL IES SOPELA DBH “IBERRE INSTITUTOA”. (EXPEDIENTE 2225/2023) (MINUTO 0:08:46): -** A continuación, toma la palabra D. Mikel Tapia, del grupo político municipal Sopelako EHBildu, para indicar: El Plan Parcial de Abaro se aprobó en Pleno del pasado mes de mayo. En el Expediente hay dos informes, técnico y jurídico, y este último deja bien claro que para dotaciones públicas se puede poner en práctica la ocupación directa. En el informe técnico, de alguna manera, indica los pasos a tener en cuenta, como tener un listado de parcelas afectadas, propietarios de las parcelas, así como la edificabilidad correspondiente a cada uno de ellos. Decir que todo esto deviene de un acuerdo firmado en el año 2013 entre la propiedad y el Ayuntamiento, por lo que no es nuevo, y es una parcela que está contigüa al edificio y en torno a 3.800 m2. El procedimiento es el siguiente: Una vez aprobado el acuerdo en este Pleno, se remite para su publicación y exposición pública durante un mes y notificar a la propiedad. Pasado este plazo, se firma el Acta de ocupación, y a partir de ese momento, existirá la posibilidad de ceder esa parcela al Departamento de Educación. Es importante notificar al Departamento de Educación lo antes posible. Mañana mismo se les notificará la certificación de este acuerdo a las instituciones y propietarios para su conocimiento y efectos oportunos. Si de aquí a 15 días sale la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia, para primeros del mes de septiembre podríamos estar firmando el Acta de ocupación y seguir con el procedimiento para poner a disposición del Departamento de Educación la parcela.

Por parte de D. Eder García, de grupo político municipal Elkarrekin Sopela/Podemos, se señala: Con este paso que damos hoy en este Pleno, que esperemos salga adelante, culmina un proceso iniciado en 2019. Consiste en ceder este terreno para que el Departamento de Educación proceda con una reclamación histórica de la comunidad educativa de Sopela, que es que en Sopela haya Bachiller. Ya desde que yo hice Bachiller, era una reclamación y de eso hace tiempo. Creemos que, con este paso de hoy, Sopela ha hecho lo que tenía que hacer, ha hecho los deberes y ahora el Departamento de Educación es el que tiene que realizar esa ampliación.

Ondoren, Sopelako Euskal Sozialistak udal-talde politikoko Mª Teresa Fernández andreak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: Legegintzaldia amaitu baino lehen, handitze hori ikusi nahi dut. Eusko Jaurlaritzak ekingo ahal dio lanari prozesua lehenbailehen amaitzeko!

Jarraian, Sopelako Auzo Alternatiba udal-talde politikoko María Luisa Gadea andreak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: Espedienteari hasiera ematen dion probidentzian akats bat dago, irakaskuntza-sistema orokorreko lurzoruak zuzenean okupatzeaz ari baikara, eta okupazioak eragindako lurzoru pribatuak tokiko sistemako lurzoruak dira, ez orokorrak, Plan Partzialean berriki onartu denaren arabera. Espedientean jasotako planoek agerian uzten dute, lurzoru pribatu horiez gain, irakaskuntzakoak ez diren udal-lurzoruak okupatzen direla, hau da, bide-lurzoruak, hala nola Iberrota kalea, eta hurrengo 3. puntuan aipatzen den Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala egin arte, hilabete batzuk barru behin betiko onartzen den arte, legez kontrakoa da Institutua handitzeko erabiltzea, nahiz eta horrek, zalantzarik gabe, beharrezkoa den handitzea atzeratzen duen. Udal-administrazioak herritarren beharrei erantzun behar diela? Jakina, baina beti legezkoa izan behar du, eta, kasu honetan, okupazioa lurzoru publikoa barne hartuta planteatzen da, eta hori legez kanpokoa da. Gainera, Udalak eta jabeek sinatutako 2013ko hitzarmena aurkeztu zaigu. 2020. urtetik dago iraungita, eta, indarrean egon arren, hitzarmena ez da lege. Lehenik eta behin, Legea aldatu behar da, behin betiko onartu eta gero okupazioa egin, eta horretarako hilabete batzuk falta dira. Baina, gainera, legez kontrakoa den gauza bat egingo da lurrak Eusko Jaurlaritzari lagatzeko eta Iberre Institutua handitzeko, eta JAURLARITZAK berak uko egin dio hori egiteari; izan ere, Zipiriñek egin nahi duen handitzea nahikoa izango da, 2 eta 16 urte bitarteko haurrak izango baititu ikastetxe zaharrean eta Zipiriñeko ikastetxe berriaren artean, eta Iberreko eraikina Batxilergorako geratuko da. Zergatik tematzen gara Eusko Jaurlaritzari nahi ez duen eta ezer eraikiko ez duen lursail bat lagatzen? Horregatik guztiagatik, aurkako botoa emango dut; izan ere, legez kontrako zerbait denez, legez kontrako horren ondorio ekonomikoak sopeloztar guztiok larrutik ordainduko genuke, gure zergekin, Barrikari gertatu zitzaion bezala.

Ondoren, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos udal-talde politikoko Mª Angeles Ibarra andreak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: EAJ-PNV, hasieratik amaierara arte, pozik gaude puntu hau Osoko Bilkurara iritsi delako. Bide luzea izan da, oztopoduna, nekeza.

Después toma la palabra Dª Mª Teresa Fernández, del grupo político municipal Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak de Sopela, indicando: Deseo que antes de que acabe la legislatura veamos esa ampliación. Ojalá el Gobierno Vasco se ponga las pilas y culmine el proceso cuanto antes.

Acto seguido toma la palabra Dª María Luisa Gadea, del grupo político municipal Alternativa Vecinal de Sopela indicando: A parte de que existe un error en la providencia que da inicio al expediente, toda vez que se trata de la ocupación directa de suelos del sistema general docente, cuando los suelos privados afectados por la ocupación son suelos del sistema local docentes, no generales, según se aprobó recientemente en el Plan Parcial. Los planos incluidos en el expediente ponen de manifiesto que, a parte de esos suelos privados, se ocupan suelos municipales que no son docentes, sino viarios, como es la Calle Iberrota, y que hasta la modificación puntual de NN.SS. a la que se refiere el siguiente punto 3, hasta que se apruebe definitivamente dentro de unos meses, es ilegal que sean ocupados para destinarse a la ampliación del Instituto, por mucho que ello suponga retrasar la ampliación que, no cabe duda, es necesaria. ¿Qué la Administración municipal tiene que dar respuesta a las necesidades de los vecinos? Desde luego, pero ha de hacerlo siempre en la legalidad, y, en este caso, la ocupación se plantea incluyendo suelo público, y es ilegal. Además, se nos presenta un convenio de 2013 firmado por el Ayuntamiento y propietarios y que está caducado desde el año 2020, y que, aunque estuviera en vigor, un Convenio no es ley, y lo primero que hay que hacer es cambiar la Ley, aprobándola definitivamente y después hacer la ocupación, y para eso, faltarían unos meses. Pero, además, se va a hacer una ilegalidad para ceder los terrenos a Gobierno Vasco y que construya una ampliación del Instituto Iberre y que ha desistido él mismo en hacerlo, puesto que la ampliación que quiere realizar Zipiriñe será suficiente al tener niños de 2 a 16 años en el colegio viejo y en el nuevo de Zipiriñe, y el edificio existente de Iberre, quedará como Bachiller. ¿Por qué nos empeñamos a ceder al Gobierno Vasco un terreno que no quiere y en el que no va a construir nada? Por todo ello, me veo obligada a votar en contra, ya que al ser algo ilegal, las consecuencias económicas de esa ilegalidad la pagaríamos muy cara todos los sopeloztarras, con nuestros impuestos, como le sucedió a Barrika.

Posteriormente toma la palabra Dª Mª Angeles Ibarra, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, para señalar: Desde EAJ-PNV, en un principio y en un final, estamos contentos de que este punto haya llegado a Pleno. Ha sido un camino

Gure ustez, babes juridikoa, legezkoa eta hirigintzakoa du, txosten tekniko batzuek bermatua. Mikel Tapia jaunak esan duenez, eman diren urratsak dira, eta duela urte batzuetatik dago hori guztia daraman talde bat. Harritu egiten nau Mª Luisa Gadea andreak dioenak. Gure ustez, hori ona da herriarentzat, hezkuntza-premia batzuei erantzun behar zaie eta kosta egin zaigu puntu honetara iristea. Aurreko legegintzaldian eta aurrekoetan egon garen guztiok dakigu nolakoa izan den eta, jakina, gure botoa aldekoa izango da. Konfiantza dugu Sopelako Udala osatu dugun korporazio guztiek kontratatutako talde teknikoengan. Harritu egiten gaitu hori guztia legez kanpokoa izateak, arauz kanpokoa izateak, etab. Gure botoa aldekoa da.

largo, con obstáculos, arduo. Entendemos que tiene un respaldo jurídico, legal, urbanístico, avalado por unos informes técnicos. Los pasos que ha dicho D. Mikel Tapia son los que se han dado y desde hace años hay un equipo que lleva todo esto. Me sorprende lo que dice Dª Mª Luisa Gadea. Para nosotros esto es un bien para el pueblo, hay unas necesidades educativas a las que hay que dar respuesta y nos ha costado llegar a este punto. Todos los que hemos vivido la legislatura anterior y las anteriores sabemos cómo ha sido y desde luego, nuestro voto será favorable. Confiamos en los equipos técnicos contratados por todas las corporaciones que hemos conformado el Ayuntamiento de Sopela. Nos extraña todo esto de las ilegalidades, que sea fuera de norma etc. Nuestro voto es favorable.

Mikel Tapia jaunak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: Planteatutako galderaren bati erantzuten saiatuko naiz. Berretsi egiten dut Mª Angeles Ibarra andreak esandakoa. Jakina, puntu hori osoko bilkurara ekarri aurretik, badira aurkezpen hori bermatzen duten txosten juridiko batzuk, eta, besteak beste, espediente honetan Etxebizitza Sailaren txosten bat ere badago. Hitzarmena iraungi den ala ez, hitzarmen horretan bertan, 4. puntuan, honako hau zioen: *«Era berean, Sopelako Udalak jakin badaki lurren hirigintza garapena eta lagapen lurrak eskuratzea kasuan kasuko tresnak onartzeko epeen mende egon behar direla, eta interesa du Abaro eremuko lursailaren jabetza aldez aurretik lortzeko, lursail horiekin mugakide den Bigarren Hezkuntzako Institutua handitzeko obrak hasi eta ahalik eta lasterren hasteko eta burutzeko helburu bakarrarekin."* Argi uzten du. Era berean, Abaro sektorearen garapenean, Hitzarmen-batzar bat dagoen Sektore baten garapenaz ari gara. Hitzarmen-batzar hori sektorearen jabeek osatzen dute eta eurek daramate sektorea garatzeko prozesua. Beraz, une honetan, ez dugu inolako jakinarazpenik, kontrakoa baizik: jabetzaren ordezkariak prest daude aldez aurretik lagatzeko edo zuzenean okupatzeko akta bat sinatzeko. Ez dago arazorik zentzu horretan. Bestalde, Iberrota kalean izango duen eragina aipatzen denean, esan behar da Abaroko Plan Partzialaren azken Testu Bateginak Hezkuntza Sailak berak egindako proposamena jasotzen duela. Proposamen hori, Iberrota kalean, trenbidea Gatzarriñe kalerantz ikusten badugu, institutuko gimnasioko paretaren paraleloan egungo eraikinari eranskin bat jartzean datza, eraikin berriaren eta dagoenaren artean zubi bat egitea saihesteko, Iberrota kalearen gainetik. Bistan denez, egungo eraikinari arxikitzean, bide bat egon behar da derrigorrez, eta bideak berak egingo du ibilbidea planteatzen den eraikinaren inguruan, Iberrotako bidea mantendu ahal izateko, hau da, ez da ezer kentzen, aldaketa bat egingo da. Ez da ezer kenduko.

Toma la palabra D. Mikel Tapia, para señalar: Intentaré responder a alguna de las cuestiones planteadas. Ratificar lo que comenta Dª Mª Angeles Ibarra. Evidentemente, con anterioridad a traer este punto a esta sesión plenaria, hay unos informes jurídicos que avalan esa presentación, y entre otros informes, también existe en este expediente un informe del Departamento de Vivienda. En relación a que, si ha caducado el Convenio o no, decir que en ese mismo convenio, en su punto número 4 decía *"Igualmente el Ayuntamiento de Sopelana, consciente de que el desarrollo urbanístico de los terrenos y la obtención de los terrenos de cesión ha de sujetarse a los plazos de aprobación de los respectivos instrumentos, está interesado en obtener anticipadamente la posesión del terreno incluido en el ámbito de Abaro, con la exclusiva finalidad de iniciar y ejecutar a la mayor brevedad las obras de ampliación del Instituto de Enseñanza Secundaria existente en colindancia con estos terrenos*." Lo deja claro. Decir también, que en el desarrollo del sector Abaro, estamos hablando del desarrollo de un Sector en el que hay una Junta de Concertación, que son los propietarios, que llevan adelante el proceso del desarrollo del Sector, por lo tanto, en estos momentos, no tenemos ninguna notificación, sino todo lo contrario, hau una disponibilidad por parte de la representación de la propiedad para firmar un acta de cesión anticipada o de ocupación directa. No hay ningún problema en ese sentido. Por otra parte, cuando se habla de la afección de la calle Iberrota, hay que decir que el último Texto Refundido del Plan Parcial de Abaro contempla la propuesta que hizo el propio Departamento de Educación y que no fue otra que, en su origen, existe la Calle Iberrota, que, si vemos las vías del tren hacia la Calle Gatzarriñe, paralela a lo que sría la pared del gimnasio del Instituto, la propuesta del Departamento de Educación fue plantear un anexo al edificio actual del gimnasio para evitar hacer un puente entre el edificio nuevo y el existente y que fuera por

Irakaskuntzako sistema orokorrei buruz hitz egiten denean, irakaskuntza sistema horiek Abaroko Plan Partzialean bertan jasota daudela ere aipatzen da; beraz, ez dago irregulartasunik zentzu horretan. Azkenik, 2 eta 16 urte bitarteko haurrei dagokienez, esan behar da zuzeneko okupazio horren helburua Institutua handitzea dela, hau da, Sopelan Batxilergoa egotea aldarrikatzen dela argi eta garbi, eta Hezkuntza Sailari aurkezten zaion helburu bakarra, Eder García jaunak hemen esan duen bezala hauxe da: Eusko Jaurlaritzari esatea 3800 m2-ko partzela bat duela Institutua handitzeko eraikina eraiki dezan Batxilergoa eman ahal izateko, eta, hortik aurrera, Hezkuntza Sailak erantzun beharko dio egingo duenari edo egingo ez duenari. Baina argi dago azken Testu Bateginak, Osoko Bilkura honek onartutakoak, argi eta garbi adierazten duela zer lurzati ukituko den eta zein den Hezkuntza Sailak aldez aurreko okupazio hori egiteko duen edo zuen interesa. Gobernu talde gisa, helburua da prozesu hori ahalik eta lasterren gauzatzea, aldez aurreko okupazio horren akta sinatu ahal izateko.

encima de la Calle Iberrota. Evidentemente, al anexionarse al edificio actual, implica necesariamente que tiene que haber un vial, y es el propio vial el que hace el recorrido alrededor del propio edificio que se plantea para que se mantenga el vial de Iberrota, es decir, no hay una supresión si no hay una modificación de ese vial. No existe una supresión. En relación a cuando se habla de sistemas generales docentes, se habla también de la posibilidad de que estos sistemas docentes ya están contemplados en el propio Plan Parcial de Abaro, por lo tanto, no hay una situación de irregularidad en ese sentido. Por último, cuando se habla de niños o niñas de 2 a 16 años, decir que el objeto de esta ocupación directa es para la ampliación del Instituto, es decir, una reivindicación clara que es que exista el Bachillerato en Sopela, y el único objetivo que se presenta al Departamento de Educación es, como se ha dicho aquí anteriormente por parte de D. Eder García es decir al Gobierno Vasco que dispone de una parcela de 3800 m2 para que construya el edificio de la ampliación del Instituto para poder impartir el Bachillerato, y a partir de ahí, será el Departamento de Educación el que tendrá que dar una respuesta de lo que hará o no. Pero claramente, el último Texto Refundido y que es lo aprobado por este Pleno, indica clamaramente la parcela que se va a afectar y cuál es el interés que tiene o tenía el Departamento de Educación a la hora de hacer esta ocupación anticipada. Nuestro objetivo como equipo de gobierno, es que cuanto antes se produzca este proceso para llegar a la firma del Acta de la ocupación anticipada.

Lursail hauek zuzenean okupatzeari buruzko espedienteari dagokionez:

- 1. finka: María Begoña Ansoleaga Elorriagaren jabetza, 2001 - N9941618W katastro-erreferentziarekin.

- 2. finka: María Begoña Ansoleaga Elorriagaren jabetza, 1002 - N0706194S katastro-erreferentziarekin.

- 3. finka: Jesús María Ansoleaga Elorriaga jaunaren jabetza, 1001 katastroko erreferentziarekin - 085 1025 01001 0001 partzela.

Idazkaritzaren txostena ikusi da, 2023ko uztailaren 10ekoa. Txosten horretan, legeria aplikagarria eta okupazio zuzena egiteko jarraitu beharreko prozedura ezartzen dira.

Udal Zerbitzu Teknikoak 2023ko uztailaren 11n egindako txostena ikusi da, zuzeneko okupazioak eragindako lursailen eta jabeen zerrendari buruzkoa. Txosten horretan, lursail eta jabe bakoitzari dagokion hirigintza-eraikigarritasuna eta egikaritze-sektore edo -

En relación al expediente relativo a la ocupación directa de terrenos pertenecientes a:

- Finca 1: propiedad de María Begoña Ansoleaga Elorriaga, con referencia catastral 2001 - N9941618W.

- Finca 2: propiedad de María Begoña Ansoleaga Elorriaga, con referencia catastral 1002 - N0706194S.

- Finca 3: propiedad de D. Jesús María Ansoleaga Elorriaga, con referencia catastral 1001 - Parcela 085 1025 01001 0001.

Visto el informe de Secretaría de 10 de julio de 2023 en el cual se establece la legislación aplicable y el procedimiento a seguir para llevar a cabo la ocupación directa en cuestión.

Visto el informe del Servicio Técnico Municipal de fecha 11 de julio de 2023 sobre la relación de terrenos y propietarios afectados por la ocupación directa, con indicación de la edificabilidad urbanística correspondiente a cada uno de estos y sector o unidad

unitate bakoitzari dagozkion eskubideak gauzatu beharko dira.

Aurreko guztia ikusita, uste dugu espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu diola, eta Udalbatzak onartu egin duela.

Horregatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 175. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Sopelako Udalaren Udal Erregelamendu Organikoaren 15.1 a) artikulua ikusita, TAOLen 20.1 c) artikuluak ematen dion eskumena emanez, eta Lurralde antolakuntza: Hirigintza, Etxebizitza, Ingurumena eta Obrak eta Zerbitzuei buruzko Informazio Batzordeak emandako irizpidea ikusita,

Kontrako botoa eman du: Alternativa Vecinal de Sopela udal talde politikokoa den María Luisa Gadea andreak,

Osoko Bilkurak, gehiengoz erabaki du

**LEHENENGOA.-** Sopelako Udalak jarraian aipatzen diren lursailak zuzenean okupatzeko espedientea hastea:

- ***1. finka:*** María Begoña Ansoleaga Elorriagaren jabetza, 2001 - N9941618W katastro-erreferentziarekin. Mugak: iparraldean, trenbideak; mendebaldean, Iberrota kalea; ekialdean, Josefina Saituaren finka; hegoaldean, Abaro kalea eta 2. partzela. Txosten hau egiteko erabilitako udal-kartografiaren arabera, 1.859,16 $m^2$-ko azalera du.

- ***2. finka:*** María Begoña Ansoleaga Elorriagaren jabetza, 1002 - N0706194S katastro-erreferentziarekin. Mugak: iparraldean, 1. partzela; mendebaldean, Iberrota kalea; ekialdean, Arestiatze baserria; eta hegoaldean, 3. partzela. Txosten hau egiteko erabilitako udal-kartografiaren arabera, 1.118,80 $m^2$-ko azalera du.

- ***3. finka:*** Jesús María Ansoleaga Elorriaga jaunaren jabetza, 1001 katastroko erreferentziarekin - 085 1025 01001 0001 partzela. Mugak: iparraldean, 2. partzela; mendebaldean, Iberrota kalea; ekialdean, Soledad Saituaren jabetzako finka; eta hegoaldean, Gatzarriñe kaleko 17. eta 21. zenbakidun eraikinekin finkatutako hiri-partzela. Txosten hau egiteko erabili den udal-

de ejecución donde habrán de hacerse efectivos sus derechos.

Visto cuanto antecede, se considera que el expediente ha seguido la tramitación establecida en la Legislación aplicable procediendo su aprobación por el Pleno de la Corporación.

Por ello, de conformidad con lo establecido en el artículo 175 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre.

Visto el artículo 15.1 a) del Reglamento orgánico municipal del Ayuntamiento de Sopela, en atribución de la competencia que le concede el artículo 20.1 c) de la LRBRL, así como el Dictamen de la Comisión de Organización territorial: Urbanismo, Vivienda, Medio Ambiente, Obras y Servicios,

Con el voto en contra de: Dª Maria Luisa Gadea, del grupo político municipal Alternativa Vecinal de Sopela.

El Pleno, por mayoría acuerda

**PRIMERO.-** Incoar expediente de Ocupación Directa para la obtención, por parte del Ayuntamiento de Sopela, de los terrenos que a continuación se relacionan:

- ***Finca 1:*** propiedad de María Begoña Ansoleaga Elorriaga, con referencia catastral 2001 - N9941618W. Linda al norte con las vías ferroviarías al oeste con la calle Iberrota, al este con la finca propiedad de Josefina Saitua, y al sur Abaro kalea y con la Parcela 2. Cuenta con una superficie, según la cartografía municipal utilizada para la elaboración de este informe, de 1.859,16 $m^2$.

- ***Finca 2:*** propiedad de María Begoña Ansoleaga Elorriaga, con referencia catastral 1002 - N0706194S. Linda al norte con la Parcela 1, al oeste con la calle Iberrota, al este con el caserío Arestiatze, y al sur con la Parcela 3. Cuenta con una superficie, según la cartografía municipal utilizada para la elaboración de este informe, de 1.118,80 $m^2$.

- ***Finca 3:*** propiedad de D. Jesús María Ansoleaga Elorriaga, con referencia catastral 1001 - Parcela 085 1025 01001 0001. Linda al norte con la Parcela 2, al oeste con la calle Iberrota, al este con la finca propiedad de Soledad Saitua y al sur con parcela urbana consolidada con los edificios números 17 y 21 de Gatzarriñe kalea. Cuenta con una superficie, según

kartografiaren arabera, 4.765,69 $m^2$-ko azalera du.

Institutua handitzeko behar den okupazioa ez da lurzati osokoa. Horrela, lurzati bakoitzaren okupazio-azalera honako hau da:

1. Partzela: 1.402,70 m2.
2. Partzela: 693,19 m2
3. Partzela: 1.010,97 m2.

**BIGARRENA.-** Zuzeneko okupazioaren xede diren finken jabetzari indarrean dagoen hirigintza-plangintzatik eratorritako hirigintza-eraikigarritasuna aitortzea, egikaritze-unitatearen etorkizuneko garapenaren kargura, udal-arkitektoaren txostenean egiten den oharrarekin:

"Abaroko Plan Partzialak zuzeneko okupazioaren eremuari eragiten dioten hirigintza-parametro hauek jasotzen ditu:

- Birpartzelatzeko eremuaren azalera osoa: 106.858,39 m2.

- Eraikigarritasuna eta erabilerak:

  - Babes publikoko etxebizitza kolektiboa: 36.750 m2
  - Etxebizitza kolektibo librea: 11.400 m2
  - Komertziala (beheko solairuan) 4.680 m2

Okupatu beharreko lursail bakoitzari dagokion hirigintza-eraikigarritasuna zehaztutako ehunekoen eta aurreikusitako eraikigarritasunen araberakoa izango da, izapidetzen den Birpartzelazio Proiektuaren arabera.

1. partzela: 1.402,70 m2. ( % 1,313)
2. partzela: 693,19 m2 ( % 0,649)
3. partzela: 1.010,97 m2. ( % 0,946)

Ondoriozko eraikigarritasuna hasierako okupatuetatik hurbil dauden emaitza-partzeletan gauzatuko da. "

**HIRUGARRENA.-** BAOn argitaratzea zuzeneko okupazioak erasandako lursailen eta jabeen zerrenda, horietako bakoitzari dagozkion hirigintza-eraikigarritasunak eta haien eskubideak zein sektore edo egikaritze-unitatetan gauzatu beharko diren

la cartografía municipal utilizada para la elaboración de este informe, de 4.765,69 $m^2$.

La ocupación necesaria para la consecución de la ampliación del Instituto no resulta de la totalidad de la parcela. De ese modo, la superficie de ocupación de cada parcela deviene en:

Parcela 1: 1.402,70 m2.
Parcela 2: 693,19 m2
Parcela 3: 1.010,97 m2.

**SEGUNDO.-** Reconocer a la propiedad de las fincas objeto de ocupación directa la edificabilidad urbanística derivada del Planeamiento Urbanístico vigente con cargo al futuro desarrollo de la unidad de ejecución con la indicación que se realiza en el informe del Arquitecto Municipal:

“El Plan Parcial de Abaro recoge los siguientes parámetros urbanísticos que afectan al ámbito de la ocupación directa:

- Superficie total del ámbito reparcelable: 106.858,39 m2.

- Edificabilidad y usos:

  Vivienda colectiva de protección pública: 36.750 $m^2$

  Vivienda colectiva libre: 11.400 $m^2$

  Comercial (en Planta baja) 4.680 $m^2$

La edificabilidad urbanística correspondiente a cada superficie de terreno a ocupar será en base a los porcentajes definidos y las edificabilidades previstas, de acuerdo con el Proyecto de Reparcelación que se tramite.

Parcela 1: 1.402,70 $m^2$. (1,313 %)
Parcela 2: 693,19 $m^2$ (0,649 %)
Parcela 3: 1.010,97 $m^2$. (0,946 %)

La edificabilidad resultante se hará efectiva en las parcelas de resultado próximas a las iniciales ocupadas.”

**TERCERO.-** Publicar en el BOB la relación de terrenos y propietarios afectados por la ocupación directa, con indicación de las edificabilidades urbanísticas correspondientes a cada uno de estos y sector o unidad de ejecución donde habrán de hacerse efectivos sus

adierazita. Era berean, interesdunen eskura egongo da Udal honen egoitza elektronikoan.

**LAUGARRENA.-** Aurreikusitako okupazioaren eta beren lursailei esleitutako hirigintza-eraikigarritasunaren berri ematea jabe horiei, bai eta egikaritze-sektore edo -unitatearen berri ere.

**BOSGARRENA.-** BAOn argitaratu eta hilabeteko epea igaro ondoren, dagokion okupazio-akta sinatu eta dagokion Jabetza Erregistrora eramango da, dagokion planoarekin batera, inskribatzeko.

**SEIGARRENA.-** Alkateari ahalmena ematea, udal-teknikariarekin eta idazkariarekin batera, egun berean pertsonatzeko eta okupazio-akta egiteko.

**ZAZPIGARRENA.-** Egindako aktaren alderdi guztiak egiaztatzen dituen administrazio-ziurtagiria ematea okupatutako lursailen jabe bakoitzari.

**ZORTZIGARRENA.-** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzari eta Hezkuntza Komunitateari jakinaraztea, bai eta Abaro Sektoreko Plan Partziala Idatzi duen Taldeari ere.

**3.- SOPELAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 10. ALDAKETA PUNTUALA HASIERA BATEZ ONESTEA, IRAKASKUNTZAKO SISTEMA OROKORRAK HANDITZEKO (4322/2021) (0:26:04 MINUTUA)**: - Jarraian, Sopelako EHBildu udal-talde politikoko Mikel Tapia jaunak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: Gai hori Lurralde Antolaketako Informazio Batzordean (Hirigintza) landu zen, baina garrantzitsua da labur-labur adieraztea zein izan den prozesua denboran zehar, iraganeko esperientzia, egungo egoera eta une honetatik aurrera eman beharreko urratsak. Iazko ekainean TANDEM ARQUITECTURA enpresari esleitu zitzaion eta Arau Subsidiarioen aldaketa hori egiteko kontratua sinatu zen. Enpresa horrek 2022ko uztailean aurkeztu zuen, garaiz eta behar den moduan, kontratuan bertan jasotzen zenez, Arau Subsidiarioak aldatzeko espedienteari hasiera emateko gaia, bai eta herritarrek parte hartzeko prozesua ere. Hala ere, modu ulertezinean eta inolako azalpenik jaso gabe, aukera hori 3 hilabetez atzeratu zen, hau da, maiatzean aukera egon zen zegokion batzordera eramateko eta , maiatzeko osoko bilkuran erabaki bat hartzeko, eta hori ez zen gertatu 2022ko urrira arte. 2022ko urriko osoko

derechos. Asimismo, estará a disposición de los interesados en la sede electrónica de este Ayuntamiento.

**CUARTO.-** Notificar personalmente a dichos propietarios de la ocupación prevista y de la edificabilidad urbanística asignada a sus terrenos, así como del sector o unidad de ejecución donde ésta se hará efectiva.

**QUINTO.-** Una vez pasado el plazo de un mes desde la publicación en el BOB, proceder a la firma de la correspondiente acta de ocupación, trasladándose la misma al Registro de la Propiedad correspondiente, acompañada del correspondiente plano, a los efectos de su inscripción.

**SEXTO.-** Facultar a la Alcaldesa para que, acompañado del Técnico municipal y del Secretario, se personen el mismo día y levanten Acta de ocupación.

**SÉPTIMO.-** Expedir certificación administrativa acreditativa de todos los extremos del Acta levantada, a favor de cada uno de los propietarios de terrenos ocupados.

**OCTAVO.-** Notificar al Departamento de Educación del Gobierno Vasco, a la Delegación Territorial de Educación de Bizkaia y a la Comunidad Educativa, así como, al Equipo Redactor del Plan Parcial del Sector Abaro.

**3.- APROBACIÓN INICIAL DE LA 10ª MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LAS NNSS DE SOPELA PARA LA AMPLIACIÓN DE LOS SISTEMAS GENERALES DOCENTES (EXPEDIENTE 4322/2021) (MINUTO 0:26:04):** - A continuación, toma la palabra D. Mikel Tapia, del grupo político municipal Sopelako EHBildu, para indicar: Este tema se trató en la Comisión Informativa de Organización Territorial: Urbanismo, pero es importante hacer un breve apunte de cuál ha sido el proceso en el tiempo para que tengamos la experiencia pasada, la situación en la que nos encontramos y los pasos que hay que dar a partir de este momento. En junio del año pasado se adjudicó y firmó el contrato con TANDEM ARQUITECTURA para realizar esta modificación de las NN.SS. Esta empresa presentó en el mes de julio de 2022, en tiempo y forma, según se recogía en el propio contrato el tema de iniciar el expediente de modificación de NN.SS. así como también el proceso de participación ciudadana. Sin embargo, de forma inexplicable y que nunca nos lo explicaron, esta posibilidad se retrasó durante 3 meses, es decir, en mayo hubo posibilidad de haberlo llevado a la comisión respectiva y de haber tomado una decisión

bilkuran, herritarrek parte hartzeko prozesu hori onartu eta espedientea ireki zen. Horrek guztiak, nolabait, atzerapen handia eta nabarmena dakar, eta horretaz arduratzen den taldeak 2023ko otsailera arte ez zuen idatzi aldaketa puntual hori. Aurtengo ekainean jaso da ingurumen-ebaluazio estrategikoa; ondoren, TANDEMek azken dokumentazioa egin du, eta uztailaren 10ean, hil honetan, arkitekto teknikoak txostena egin du. Esan behar da aldaketaren xedea udalerriko irakaskuntza sistema orokorrak handitzea dela, eta Zipiriñeri eta Iberre Institutuari egiten die erreferentzia. Zipiriñe Ikastetxe Publikoa handitzea Loroño deritzon lurzatiari dagokio (5.400 m2 inguru). Era berean, Iberre Institutua handitzea ere sartzen da eta nolabaiteko zuhurtzia juridiko moduko bat da, beharrezkotzat jo baitzen Arau Subsidiarioen aldaketa aldi berean izapidetzea; hau da, Abaroren kasuan bi elementu hauek gehiago indartzen dute:alde batetik, Arau Subsidiarioen aldaketa hezkuntza hornitzeko, eta, bestetik, Iberreko lurzati horren zuzeneko okupazioa bera. Hemendik aurrera, prozedura honako hau izango litzateke: Iragarkia berehala argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Ondoren, jendaurrean jarri da hilabeteko epean, alegazioak egin ahal izateko, eta epe hori igarota, dena azkar badoa, irailean Informazio Batzordera eraman ahal izango dugu, eta, ondoren, Osoko Bilkurara, behin-behinean onartzeko: Horixe da hurrengo pausoa. Onartze hori, gaurkoa zein behin betikoa, gehiengo osoz onartu behar da.Orduan, irailean behin-behinean onartu ondoren, ahal bada, dokumentazio hori Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidali beharko zaio, irizpena eman dezan. 3 hilabeteko epea dute, nahiz eta ez duten nahitaez epe hori agortu behar, hala ere, 3 hilabeteko epea irizpenik eman gabe igarotzen bada, aurrera egin daiteke prozedurarekin. Beraz, abenduan edo 2024ko urtarrilean onar liteke behin betiko aldaketa hori. Esan beharra dago, talde teknikoarekin zein juridikoarekin, hemendik hurrengo urtarrilera arte egin beharreko ekintzen egutegia egin dela, garatu beharreko zeregin zehatzekin, arduradun zehatzekin, eta, nolabait, egutegi honetako praktika horiek betetzen saiatuko ginateke.

en el pleno del mes de mayo, y esto no ocurrió hasta octubre del año 2022. En el pleno de octubre del año 2022, se aprueba ese proceso de participación ciudadana y se abre el expediente. De alguna forma, todo ello lleva un retraso importante y sustancial, y no es hasta febrero de 2023, cuando ya se hace la redacción por parte del equipo encargado para presentar esa modificación puntual. En junio de este año es cuando se recibe la evaluación ambiental estratégica, con posterioridad TANDEM hace la última documentación y el día 10 de julio, este mes, el arquitecto técnico elabora el informe. Hay que decir que el objeto de la modificación no es otro que la ampliación de los sistemas generales docentes del municipio, y hacen referencia tanto a Zipiriñe como al Instituto de Iberre. La ampliación del C.P. Zipiriñe corresponde a la parcela, siempre denominada, de Loroño, que es de aproximadamente, de 5.400m2, y también se incluye la ampliación del Instituto de Iberre como una especie de cautela jurídica, porque se consideró necesaria tramitar paralelamente la modificación de las NN.SS, es decir, que en el caso de Abaro nos encontramos con dos elementos que refuerzan más, por un lado, la modificación de las NN.SS para que sea una dotación educativa, y por otro, la propia ocupación directa de esa parcela de Iberre. A partir de ahora, el procedimiento sería el siguiente: Publicar el anuncio de forma inmediata en el Boletin Oficial de Bizkaia. Posteriormente, hay una exposición pública por periodo de un mes para poder realizar alegaciones, y pasado este periodo, si todo va rápido, nos situaría en un horizonte temporal en el mes de septiembre se pudiera llevar a la Comisión Informativa y posteriormente a Pleno, para su aprobación provisional, que es el siguiente paso que habría que dar. Esta aprobación, tanto la de hoy, como la definitiva, se tienen que aprobar por mayoría absoluta. Entonces, aprobado provisionalmente en el mes de septiembre, si se puede, se tendrá que enviar esa documentación a la Comisión de Organización del Territorio del País Vasco, para que emite un dictamen. Tienen de plazo sobre 3 meses, aunque no necesariamente tiene que agotar ese plazo, pero si pasa el plazo de los 3 meses sin emitir dictamen, se puede seguir adelante con el procedimiento. Por lo tanto, nos situaríamos en un escenario temporal de diciembre, enero de 2024, en el que se pudiera aprobar de manera definitiva esta modificación. Decir que, tanto con el equipo técnico como jurídico, se ha elaborado un calendario de acciones a realizar desde ahora hasta el próximo enero, con tareas concretas a desarrollar, con responsables concretos, y, de alguna forma, lo que sí nos llevaría sería a intentar cumplir con esas prácticas de este calendario.

Jarraian, Eder García jaunak hartu du hitza, honako hau

Acto seguido toma la palabra D. Eder García, para

adierazteko: Berriro diot lehen esandakoa, eta kasu honetan, Loroñoko eremua sartuko litzatekeela adierazi nahi dut, eta horrekin uste dut Sopelak amaitutzat emango lukeela kontu hau; hau da, Sopelako Udalak Abaroko zein Loroñoko lurrak lagako lizkioke Hezkuntzari, Institutua eta Zipiriñe ikastetxea handitzeko erreklamazio historikoa gauza dadin eta Sopelak duen hezkuntza-arazoari irtenbide integrala eman diezaion. Bai Abaro bai Loroño abenduan izatea espero dugu, urtarrilean baino hobeto, eta espero dugu Hezkuntzak gauza bera egitea eta prozesu luze honetan bere ekarpena egitea.

indicar: Reiterar lo expuesto anteriormente, y en este caso, añadir que se incluiría el terreno de Loroño, y con esto considero que Sopela daría por finalizada su parte en toda esta ecuación, que sería ceder a Educación tanto Abaro como Loroño, para que la reclamación histórica de ampliación de Instituto y Zipiriñe se materializara y diera una solución integral al problema educativo que tiene Sopela. Esperemos que tanto Abaro como Loroño sea en diciembre, mejor que en enero y esperamos que Educación haga lo propio y aporte su granito de arena a todo lo largo que ha sido este proceso.

Ondoren, Mª Teresa Fernández andreak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: Eder jaunak azaldutakoa apur bat errepikatzea. Luzaroan bizi izan dudan prozesu luzea da, eta orain Hezkuntza Sailaren esku dago. Nire nahia da prozesu hori lehenbailehen amaitzea da, legegintzaldi honetan hurrengoan baino hobeto. Jakina, proposamen honen alde bozkatuko dut.

Después toma la palabra Dª Mª Teresa Fernández, para señalar: un poco reiterar lo expuesto por D. Eder. Es un largo proceso que he vivido durante mucho tiempo y ahora la pelota está en el tejado del Departamento de Educación. Mi deseo es que este proceso se vea culminado cuanto antes, mejor en esta legislatura que en la siguiente. Por supuesto, votaré favorablemente esta propuesta.

Ondoren, Mª Luisa Gadea andreak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: Alkateari edo Hirigintzako zinegotziari honako hau galdetu nahi nion: ba al dakizu irakaskuntza-sistema orokorra handitzeko Sopelako Arau Subsidiarioen aldaketa hau hasiera batez onartuz gero, lursail horiek Abaro sektoretik ateratzen ari direla? Ba al dakizue Abaro sektoretik aterata 4 urte barru Udal honek desjabetu beharko dituela bai ala bai? Eta enpresa eraikitzaileak edo promotereak birpartzelazioa egin eta dirua beraiek ordaindu beharrean Sopelako herriak egin behar izatea? Sopelako nire bizilagunei behar baino diru gehiago kostatzea nahi ez dudanez, hurrengo irailera arte gai-zerrendatik puntu hori kentzea eskatu nahi nuke, egiten ari dena ondo aztertu ahal izateko, diru dezente kostatuko baitzaigu sopeloztarroi.

Posteriormente toma la palabra Dª Mª Luisa Gadea para indicar: Quería preguntar a la Sra. Alcaldesa o al Sr. Concejal de Urbanismo lo siguiente: ¿sabe que aprobando inicialmente esta modificación de NN.SS. de Sopela para la ampliación de sistema general docente, se están sacando esos terrenos del Sector Abaro? ¿Saben que el sacarlo de Abaro dentro de 4 años este Ayuntamiento tendrá que expropiarlos sí o sí? ¿Y que en vez de la constructora o promotora le haga la reparcelación y les tenga que pagar ellos el dinero lo tenga que hacer el pueblo de Sopela? Puesto que no quiero que a mis vecinos y vecinas de Sopela les cueste más dinero que lo necesario esta ampliación, me gustaría solicitar la retirada de este punto del orden del día, hasta el próximo mes de septiembre, para poder estudiar bien lo que se está haciendo, porque nos va a costar bastante dinero a los Sopeloztarras.

Alkateak adierazi duenez, eztabaidarekin jarraitu aurretik, eta Mª Luisa Gadea andreak puntu hori gai-zerrendatik kentzeko eskatu duenez, puntu hori kentzea bozkatzen da, eta horren emaitza hau izan da:

Por parte de la Sra. Alcaldesa, se indica que, antes de continuar con el debate y debido a que la Sra. Mª Luisa Gadea ha solicitado que este punto quede retirado del orden del día, se procede a votar la retirada del punto, y cuyo resultado el el siguiente:

Mª Luisa Gadea andreak puntu hori erretiratzeko emandako aldeko botoarekin,

Con el voto favorable de la retirada emitido por Dª Mª Luisa Gadea,

Osoko Bilkurak, gehiengoz erabaki du:

El Pleno, por mayoría, acuerda

Puntu hori gai-zerrendatik ez kentzea.

No retirar este punto del orden del día.

Jarraian, puntu honetan esku hartzeko txandarekin jarraitu da.

Acto seguido, se continúa con el turno de intervenciones de este punto.

Ondoren, M. Angeles Ibarra andreak hartu du hitza, honako hau adierazteko: Gure taldeak aldeko botoa emango dio proposamen honi. Mikel Tapiak azaldu dituen urrats guztiak ezagutzen ditugu, baita denbora-tarteak ere. Ez dugu gai horietan sakonduko, zalantzarik gabe, gure jarrera proaktiboa eta positiboa baita puntu honetan, baina bere garaian eman beharreko azalpen guztiak eman genituen. Jakin badakigu etorkizunean zer urrats egin behar diren, eta argi dago helburu nagusia Sopelak irakaskuntzaren arloan izango dituen egungo eta etorkizuneko hezkuntza-premiak asetzea dela, bai Zipiriñen, bai Iberren. Esan bezala, taldea egingo dugu puntu hau aurrera ateratzeko

A continuación, toma la palabra Dª Mª Angeles Ibarra, para indicar: Nuestro grupo votará favorablemente esta propuesta. Somos conocedores de todos los pasos que ha explicado D. Mikel Tapia, incluso de los lapsos de tiempo. No vamos a ahondar en esos temas, porque desde luego, nuestra actitud es proactiva y positiva en este punto, pero se dieron todas las explicaciones oportunas en su momento, Somos también conocedores de los pasos a dar a futuro y está claro que el objetivo principal es cubrir unas necesidades educativas actuales y futuras que va a tener Sopela respecto al tema docencia, tanto en la parte de Zipiriñe como Iberre. Como he dicho, vamos a hacer equipo para sacar adelante este punto.

Ondoren, Mikel Tapia jaunak hartu du hitza, honako hau adierazteko: Pare bat argibide. Okupazio-aktak, sinatzen denean, birpartzelazio baten berezko ondorioak ditu. Gainera, aurreko puntuan ere esan dugu lurzati horien jabeei dagozkien eraikigarritasun-eskubideak aitortzen zaizkiela, eta, beraz, ez dagoela inolako gastu erantsirik. Era berean, hitzarmenean jasotakoari lotzen gatzaizkio, bai eta jabeek hitzarmen horren edukia okupazio-aktaren bidez sinatzen jarraitzeko duten borondateari ere. Arau subsidiarioen aldaketaren izenburua horixe da, hain zuzen ere, «*Udalerriko irakaskuntza-sistema orokorrak handitzea*», eta halaxe dago jasota Abaro garatzeko prozesuan ere; hau da, partzela horren azken helburua hezkuntza-hornidura dela. Ez dugu inola ere ikusten María Luisa Gadea andreak planteatutakoa.

Posteriormente, toma la palabra D. Mikel Tapia para indicar lo siguiente: Un par de aclaraciones. El acta de ocupación, cuando se firma, tiene los efectos propios de una reparcelación. Además, hemos dicho también en el punto anterior, que se reconoce a los propietarios de esas parcelas los derechos de edificabilidad que les corresponde, por lo que no hay un gasto añadido. Nos remitimos también a lo recogido en el convenio y la voluntad por parte de la propiedad de continuar con la firma del contenido de ese convenio a través del acta de ocupación. Decir también que el título de la modificación de las normas subsidiarias es ese, la ampliación de los sistemas generales docentes del municipio, y así está contemplado también en el desarrollo de Abaro, es decir, que esa parcela tiene un objeto final que no es otra, que la dotación educativa. No vemos por ningún lado lo planteado por Dª María Luisa Gadea.

Azkenik, alkateak hartu du hitza eta honako hau adierazi du: Azken ohar bat egin nahi nuke, Eder García jaunak azaldutakoari buruzkoa, Udalaren lana hemen amaitzen dela adierazi baitu. Gure lana oraindik amaitu gabe dagoela esatea. Aldameneko lursailetan lanean jarraitu behar da, Loroñon esaterako, horiek ere aldatu beharko liratekeen aztertzeko. Hemen ez da lana amaitzen.

Por último, toma la palabra la Sra. Alcaldesa para señalar: Quisiera hacer un último apunte, referido a lo expuesto por D. Eder García, cuando señalaba que aquí finaliza el trabajo del Ayuntamiento. Decir que aún no finaliza nuestro trabajo. Hay que seguir trabajando en las parcelas colindantes, como la de Loroño, para estudiar si haría falta también modificarlas. No se acaba aquí el trabajo.

Kontuan hartu da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak hainbat aldiz eskatu duela (zehaztasun-asmorik gabe, 2011/01/17an, 2019/10/2an eta 2021/10/28an) udalerriko ikastetxeak handitzeko, Sopelako hezkuntza-beharrei behar bezala erantzuteko.

Teniendo en cuenta que la Delegación Territorial de Bizkaia del Departamento de Educación del Gobierno Vasco ha solicitado en diversas ocasiones (sin ánimo de exhaustividad, en fechas 17/01/2011, 2/10/2019 y 28/10/2021) la ampliación de los centros docentes del municipio al objeto de atender adecuadamente a las necesidades educativas de Sopela.

Helburu hori lortzeko, 2022ko apirilaren 22ko 2022-0554 Tokiko Gobernu Batzarraren Erabakiaren bidez, "Irakaskuntzako Sistema Orokorrak Zabaltzeko

Teniendo en cuenta que, para alcanzar dicho fin, mediante Acuerdo de Junta de Gobierno Local 2022-0554, de 22 de abril de 2022, se determinó la

Sopelako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualerako Zerbitzua" kontratatzeko beharra ezarri zen, prozedura ireki sinplifikatuaren eta ohiko izapidetzearen bidez, eta, ondorioz, kontratazio-espedientea onartu zen.

necesidad de contratar el "Servicio de Modificación Puntual de las NNSS de Sopela para la Ampliación de Sistemas Generales Docentes", mediante procedimiento abierto simplificado y tramitación ordinaria, con la consiguiente aprobación del expediente de contratación.

Kontratu hori 2022ko ekainaren 3ko 2022-0778 Tokiko Gobernu Batzarraren Erabakiaren bidez esleitu zitzaion TANDEM ARKITEKTURA HIRIGINTZA BULEGOA, S.L.P-ri eta 2022/06/13an sinatu zen.

Habiéndose adjudicado el citado contrato mediante Acuerdo de Junta de Gobierno Local 2022-0778, de 3 de junio de 2022, a TANDEM ARKITEKTURA HIRIGINTZA BULEGOA, S.L.P. y habiéndose suscrito el contrato en fecha 13/06/2022.

Udal honen Osoko Bilkurak, 2022ko urriaren 27an egindako bilkuran, kontratatutako lanak hastea erabaki zuen, eta, era berean, esleipendunak egindako Herritarren Partaidetzarako Programa onartu zuen (2022/12/21eko BAO, 241. zk.).

